



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2022/2023 Denboraldia

35. ZIRKULARRA

EMAKUMEZKOEN EUSKAL KOPA - LAUKO FINALAREN ZOZKETA – FINALERDIAK ETA FINALA -

Gaurko egunean, eta denboraldi honetako 23. zirkularrean eta 31. zirkularrean ezarritako Lehiaketa Oinarrien eta Arau Erregulatzailen jarraipen gisa, Emakumezkoen Euskal Kopako Lauko Finala – Finalerdiak eta Finala zozketatu dira.

1.- KLUB PARTE-HARTZAILEAK (4)

Club Bizkerre “B”, Deportivo Alavés “B”, S.D. Eibar “C” eta C.D. Elorrio.

2.- NON JOLASTUKO DEN

Finalerdiak eta finala Laudioko Ellakuri futbol zelaian jokatu dira.

3.- DATAK

Emakumezkoen Euskal Kopako Lehiaketa Oinarrien eta Arau Erregulatzailen arabera, finalerdiak partida bakarrera jokatu dira ostiralean, hilak 16, eta finala igandean, hilak 18.

1. Finalerdia: ostirala, hilak 16, 17:00etan.

2. Finalerdia: ostirala, hilak 16, 19:15etan.

Finala: 1. finalerdiko irabazlea – 2. finalerdiko irabazlea, hilaren 18ean, igandea, 12.00etan.

4.- FINALERDIETAKO ZOZKETAREN EMAITZA

1- DEPORTIVO ALAVÉS “B” – C.D. ELORRIO

2- S.D. EIBAR “C” – CLUB BIZKERRE “B”



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

5.- BERDINKETAK

Balizko berdinketak Euskadiko Futbol Federakundearen Araudi Orokorrean ezarrita dagoen bezala ebatziko dira, talde bakoitzak bost penalti botako lituzke, jaurtiketa alternatiboki eginik, hau da, lehenengo penaltia talde batek eta gero besteak, horrela talde bakoitzak dagokizkion bostak jaurti arte. Jaurtiketa hasi baino lehen, zein hasiko ote den jakiteko zozketa egingo da irabazlea aukeratuz nork jaurtiko duen lehen, eta ate berberaren aurrean jokalaria desberdinek jaurti beharko dituzte beraien taldeen penaltiak. Gol gehien lortzen dituen taldeak irabaziko du. Bost jaurtiketak egin eta gero berdinketak jarraituko balu, jaurtiketak ordenu berean jarraituko dute, banan-banan, eta lehen jaurtiketak egin ez dituzten beste jokalaria batzuk egin beharko dituzte jaurtiketak, jaurtiketa kopuru berdina egin eta gero, bi taldeetako batek tanto baten diferentzia lortu arte, eta honela garaile izanik.

Jaurtiketa hauek aurreko luzapena bukatu eta gero zelaiean gelditzen ziren jokalariek bakarrik egin ditzazkete, edozeinek atezaina ordezkatzeko posibilitatea izanik.

Bilbo, 2023ko ekainaren 5a

ALLICA

KEPA ALLICA BILBAO
Secretario General